

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2009KO EKAINA


Euskal AEko industri jarduera % 23,4 jaitsi da 2009ko ekainean

Aurreko hilabetearen, hau da, 2009ko maiatzaren aldean % 0,1 jaitsi da

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal AEko industri produkzioa 2008ko ekainaren aldean % 23,4 jaitsi da 2009ko ekainean.

Aurreko hilabetearen, hau da, 2009ko maiatzaren aldean Euskal AEko industri produkzioa % 0,1 jaitsi da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2009ko ekaineko indizearen bilakaera jaitsi egin da sektore guztietan, 2008ko ekainaren aldean: ekipamenduko ondasunak % 29,6 jaitsi dira, tarteko ondasunak % 27,7 jaitsi dira, energia % 6,4 jaitsi da eta kontsumo-ondasunak % 7,1; azken hauen beherakada, kontsumo-ondasun iraunkorrek (-% 32,9) izandako beherapenen ondorioz eman da kontsumo-ondasun ez iraunkorrek % 2,8 egin dutelako gora.

2009ko ekaineko hilabete arteko aldakuntzek (2009ko maiatzaren aldean) zeinu ezberdina izan dute: kontsumo-ondasunek % 1,7 egin dute gora kontsumo-ondasun ez iraunkorrek gora egitean (% 4,9); baina kontsumo-ondasun iraunkorrek % 8,2 egin dute behera. Energia % 0,5 gehitu da; ekipamenduko ondasunek eta tarteko ondasunek, aldiz, % 0,8 eta % 0,2 egin dute behera hurrenez hurren.

Lurralde historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak negatiboak izan dira hiru lurraldeetan: Araban % 25,6 jaitsi da, Bizkaian % 23,7 eta Gipuzkoan % 21,7.

2009ko maiatzetik urte bereko ekainera bitartean, Bizkaian (-% 1,2) eta Gipuzkoan (-% 0,2) tasak negatiboak izan dira baina Araban tasa hori % 2,7 gehitu da.

Taula: 2009ko EKAINA. Euskal AEko Industri Produkzio Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Eka09/Eka08	At/At-1 (1)	Eka09/Mai09	Mai09/Api09
Indize orokorra: Euskal AE	-23,4	-24,5	-0,1	-3,1
Araba	-25,6	-30,2	2,7	-1,7
Bizkaia	-23,7	-22,2	-1,2	-4,9
Gipuzkoa	-21,7	-24,1	-0,2	-1,6
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-7,1	-15,0	1,7	1,2
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-32,9	-28,8	-8,2	1,7
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,8	-9,5	4,9	1,0
Ekipo-ondasunak	-29,6	-27,2	-0,8	-4,9
Bitarteko ondasunak	-27,7	-30,5	-0,2	-3,2
Energia	-6,4	-5,2	0,5	-5,8

(1) t urteko urtarrietik azken hileraren arteko aldakuntza-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Fax +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp